

2011ko urriaren 17a · Pobreziaren aurkako Nazioarteko Eguna

Pobreziaren datuak eta aurpegiak

Gure munduan... Ekintza gehiago, hitz gutxiago!!!

(Iturriak: ONU, PNUD, Pobrezia Zero Kanpaina, Cáritas, Centre Cristianisme i Justicia, Internón-Oxfam)

Bidegabeko desberdintasun sakonean murgildutako planeta batean bizi gara:

- **1.300 milioi lagun egunean dolar bat baino gutxiagorekin** bizi dira.
- **3.000 milioitik gora** pertsona egunean **bi dolar baino gutxiagorekin** bizi da.
- 1960an pertsona aberats bat zegoen 30 pobreko, 1997an bat 70eko, eta gaur egun **hauxe da proportzioa: 1 80 pobreko**.
- **Urtean 11 milioi haur hiltzen dira** bost urte bete baino lehen malnutrizioagatik eta prebenitu daitezkeen gaixotasunengatik, hala nola paludismoa, beherakoa edo pneumonia.
- **800 milioitik gora lagun** gosez bizi dira. Egunean **40.000 pertsona** hiltzen dira gosez edo goseak eragindako gaixotasunengatik.

- Aberatsenen **%10a** munduko **aberastasunaren %85aren jabe da**
- **600 pertsona daude mila milioi dolar baino gehiagoko ondarea** dutenak. Munduko hiru aberastasun pertsonal handienek **48 Estatu** pobreneen aberastasunaren adinako ondarea dute.
- **Nazioz gaindiko enpresa** batzuen mozkinak Hegoaldeko herrialde askoren **BPGa baino handiagoak dira**.
- Planetako biztanleriaren **%20k bere esku du baliabide naturalen %86**
- Munduko **gastu militarra 1,125 bilioi eurokoa da**. Kopuru horren **%1arekin**, mundu guztiak eduki lezake ur edangarria; **%2arekin** gosea desagerraraz liteke 10 urteren buruan.

Pobreziak emakumeei eragiten die batez ere:

- Planetako pobreen **%70 emakumeak** dira.
- **Minuturo** emakume bat **hiltzen da** -350.000 inguru urtean- **erditzean** gertatutako konplikazioen batengatik, eta horietako gehienak garapen bidean dauden herrialdeetakoak dira. Sahara azpiko Afrikan **16 emakumetik 1** hiltzen da haurdunaldian edo erditzean izandako arazoengatik.
- Afrikan **nekazaritzako** langileen **ehuneko 80** baino gehiago emakumeak dira. Sahara azpiko Afrikan emakumeek produzitzen dituzte oinarritzko elikagaien **%80**, baina diru-sarreraren **%10** baino ez dute jasotzen eta **munduko lurraren %1** bakarrik kontrolatzen dute.
- Munduan 774 milioi pertsona heldu analfabeto daude. Horien **bi herenak** emakumeak dira eta proportzioa bere horretan mantendu da azken 20 urteetan **eskualde gehienetan**.
- Munduko eskualde guztietan ematen da **segregazio okupazionala** eta generoaren araberako **soldata desberdintasuna**. Emakumeek ordaindu gabeko **etxeko eta zaintza lan** gehiago egiten dituzte munduko eskualde guztietan.

Europar... Ekintza gehiago, hitz gutxiago!!!

(Iturriak: EAPN, Cáritas)

Europar 80 milioi pertsona bizi dira pobrezian edota bazterkeria sozialeko egoeran.

Espaniar Estatuan pobrezian bizi dira biztanleen **%20,8 (10 milioi lagun** inguru). 2007tik 2010era, 800.000 lagun gehiago sartu ziren **sozialki baztertutako**en multzoan, guztira **8,5 milioi direlarik** egoera horretan bizi direnak.

1,4 milioi etxetan familiako inork ez du lanik egiten; 500.000 etxetan agortu egin dituzte **laguntza sistemak** eta ez dute inolako diru-sarrerarik.

Hauetx dira **pobrezia Europar dituen ezaugarrietako batzuk:**

- Guraso bakarreko familiak, Europatik kanpoko etorkinak, lanpostu egonkorrik gabeko 45 urtetik beherakoak, emakumeak eta adinekoak.
- Pobrezia zailtasun metagarriekin lotuta egoten da: etxebizitza duinik eza, langabezia, lanpostu prekarioak edo ekonomia murgildukoak, analfabetismoa, gaixotasunak...
- Pobrezia arriskuan bizi diren 65 urtetik gorako biztanleen kopurua handitu egin da Estatuan, %25,2raino iritsi delarik.
- Pobrezia urbanoa da batez ere.
- Pobrezia emakumeen artean ematen da nagusiki.
- Pobrezia 35 urtetik beherako artean ematen da gehienbat. 35 urtetik beherako batek zuzendutako etxeetan pobrezia tasa %8koa da eta 25 urtetik beherakoek zuzendutakoetan %47,9raino igotzen da.

Euskadin... Ekintza gehiago, hitz gutxiago!!!

(Iturriak: EAEko Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko 2008ko Inkesta, Emakunde, Cáritas, prentsa)

- **88.643 lagun** (%4.1), hots, 36.955 etxe pobrezian bizi dira. "Normalizazio" edo kalteberatasun sozialeko egoeretan bizi diren pertsonen zailtasun handiak izaten dituzte beren bizi proiektuak berregiteko, ez dutelako lan aukerarik, etxe-kaleratzei aurre egin behar dietelako, zorpean bizi direlako eta testuinguru sozialak ez dituelako onartzen.
- **Biztanleriaren %19,3 pobrezia edo bazterkeria arriskuan bizi da.**
- Arazo hori dutenen %67 **Europatik kanpokoak** dira eta gainerako herena berriz Europar Batasunekoak (EB).
- Bestalde, **ongizate gabe** bizi dira **313.215 pertsona (%14,6)**. Hala, 140.000 etxek arriskua dute beren ongizate egoera prekarioa galdu eta pobrezian erortzeko.
- **35 urtetik beherako** batek zuzendutako etxeetan bizi diren pertsonen %9 pobrezian bizi dira eta 25 urtetik beherako batek zuzendutako etxeetan berriz tasa hori %47,9raino igotzen da.
- EAEko **langabetuen** %36,5ek baino gehiagok ez dute prestazio ekonomikorik.
- 1.500dik gora familiari aurretik abisatu gabe eta irregularki kentzen zaie **diru-sarrerak bermatzeko errenta**.
- Pobrezian edo bazterkeria sozialeko arriskuan bizi diren pertsonen %80 baino gehiago **emakumeak** dira.
- Lan munduan, sexuen arteko **soldata desberdintasuna** urtean 7.000 € baino gehiagokoa da.
- Emakumeek gizonek baino egunean 2 ordu eta 23 minutu gehiago igarotzen dituzte **etxeko eta zaintza lanak** egiten (adin txikikoak, gaixoak eta menpekoak).
- Hego Euskal Herriko biztanleen %1,30ek 37.502 milioi euroko **ondarea** zeukan 2009an (Euskal BPGaren %44,4).